

# BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA: ZERBITZU SOZIALAK

## ✓ **PROPOSAMENA**

Ampliar el presupuesto para Ayudas de Emergencia Social y Ayudas para el Alquiler. La ampliación de estas ayudas sirve para paliar y prevenir los pozos de pobreza

Alokairu sozialerako edo alokairurako dauden herri diru-laguntzak indartu. Ikusita alokairuen eskeintza urria eta garestia diru laguntzak egoera honetara

Langabezian edo lan egoera prekarioan dauden langileei diru laguntzak eskaini.

Arazo energetikoak edota emergentzia ekonomikoak pairatzen dituzten etxeentzako diru-laguntzak eskaini. Bono sozialak indartu edo sortu.

Hernaniko udaletxearen eta udal taldeen helburu nagusia herriko jendearen ongizatea da. Horretarako pobrezia-aren aurkako politikak sustatzea ezinbestekoa da. Babesgabetasun eta pobrezia egoeran dauden herritarren gabeziei aurre egin behar diegu eta aurrekontu parte hartzaile hauek horretarako bide bat izan behar dute. Etxebizitza eza, prekariedade laborala, arazo energetikoak, pobrezia azken batean. EH Bilduk egoera hau pairatzen duten herritarrei irtenbide bat emateko aurrekontu sozialak aurkeztu ditu legealdi honetan, baina ez da nahikoa arazo sistemiko honi aurre egiteko. Horiei bultzada bat emateko, 500.000 euroko aurrekontua hurrengo proiektuetan erabiltzeko proposamenak aurkezten ditut.

Gaur egungo alokairurako diru-laguntzen partida indartzea (guztira 60.000€)

## ✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Zerbitzu Sozialak erakundearen bidez helburu berdintsuak dituen diru-laguntza programak indarrean daude. Proposamena onartuz gero indarrean dauden laguntzen arautegia aplikatu beharko zien edo arautegi berria onartu beharko zen. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen bidez helburu berdintsuak dituen diru-laguntzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Gizarte-bazterketa egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko bakarkako diru-laguntzak dira. Pobrezia-aren aurkako neurriak Eusko Jaurlaritzaren eskumena dira. Saihestu egin behar da beste erakunde batzuek esleipen osagarriak egitea, esleipen horiek ez baitakarte Euskal Autonomia Erkidegoan prestazio horretarako eskubidea duten herritarrak desberdin tratatuak izatea besterik.

Eskaera hauek guztiak bateratu daitezkeela baloratzen da.

## ✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

Pobrezia-aren aurkako diru-laguntzak planifikatuta, araututa eta beste eragile publikoekin koordinatuta egon behar da. Horregatik, egun dauden diru-laguntzen arautegiak aplikatzen jarraitzea baloratzen da eta Udalak duen Gizarte-bazterketa egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko bakarkako diru-laguntzen partida handitzea. 60.000 euro.

## ✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

Diru-laguntzak urteko epean kudeatzen dira.

## ✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

Laguntzak kudeatzeko Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundean jaso beharko ziren. Pobrezia egonez gero, proposamenean aipatzen diren beharrak beti egongo dira eta diru-laguntzak behin martxan jarritz, betirako mantendu behar dira.

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Proposamenak aurrera egitea proposatzen da.